

ERAKUNDEAREN DATUAK

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezzen.

1. Erakundearen izena:	EUSKO LEGEBILTZARRA
2. Sektorea:	<input type="checkbox"/> Hezkuntza <input type="checkbox"/> Industria <input type="checkbox"/> Osasuna <input type="checkbox"/> Zerbitzuak <input checked="" type="checkbox"/> Administrazio publikoa <input type="checkbox"/> Gizarte ekintza
3. Langile kopurua:	110
4. Webgunea:	www.legebiltzarra.eus
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Erakunde legegilea da Eusko Legebiltzarra. Administrazioaren eginbehar nagusia da Eusko Legebiltzarrari bere organoei laguntzea eta zerbitzatzea beren funtzioa eta eginkizunak zuzen eta egoki bete ditzan. Bere bezero eta erabiltzaile nagusiak dira legebiltzarkideak eta talde parlamentarioak.</p> <p>Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 2. artikuluan jasotzen da euskara eta gaztelania direla erakundearen hizkuntza ofizialak eta beren erabilera normalizatua bermatuko dela.</p> <p>Horiek horrela, legebiltzarkideei, Eusko Legebiltzarreko langileei eta oro har herritarrei ere aitortzen zaie bi hizkuntza ofizialak berdin-berdin erabiltzeko eskubidea, bai Euskal Legebiltzarrekiko harremanetan bai beren betekizunak betetzean.</p> <p>Eusko Legebiltzarrak beharrezko neurriak eta baliabideak jartzeko eta arautzeko betebeharra hartzen du bere gain bi hizkuntzak jakitea eta erabiltzea bermatzeko.</p>

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	AITOR ETXEBARRIA ZAMORA
Helbide elektronikoa:	aitor_etxebarria@legebiltzarra.eus
Telefonoa:	945004235

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Euskara kudeaketa sisteman integratzeko ibilbidea
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Hizkuntza Normalizazioaren kudeaketa erakundearen (Eusko Legebiltzarreko Administrazioaren) kudeaketa orokorrean txertatzeko ibilbidea deskribatzea, ibilbide oraindik bukatu gabea.</p> <p>Jatorrian, gutxienez, bi iturburu bereiz daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none">- Premia bat: egindako lanean oinarrituta etorkizuneko lanari oinarri sendoa jartzea.- Praktika on baten aurkikuntza (Lehendakaritza) aurreko premiaren erantzun posible gisa. Aurkikuntza hau Legebiltzarraren errealitatera egokitzeko nahia. <p>Bidea bera da orain arteko onura handiena:</p> <ul style="list-style-type: none">• Talde sendoa osatzen ari gara:- Alde batetik, oinarrian bidea prestatzen eta prozesua gidatzen ari den lantaldea. Bertan dago inplikaturik Eusko Legebiltzarreko Administrazioaren ardura gorena duena; alegia, legegaria nagusia.- Hausnarketan parte hartzen ari den beste talde zabalago bat, arduradun teknikoek eta langileen ordezkari esanguratsuek osatua.• Kontzientzia bat pizten ari gara: lidergo partekatuarena, Normalizazioaren ardura hedatuago egon behar dela, ardura zuzenena duen profesionalak haratago.• Etorkizuna izango duen prozesu bat jarri dugu abian. Eta honen bermea litzateke:- 2023-2027 Plan Estrategikoan txertatuko direla gogoeta honetatik guztitik aterako den ekintza plana- Ekintza plan hau zuzendaritza- eta zerbitzu-mailan prestatuko diren mikroplanetan gauzatuko dela, zuzendaritza eta zerbitzu horietako arduradunen gidaritzapean.

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)


Erantsita bidaltzen ditugu:

1. Praktika onaren azalpenean erabilitako aurkezpena PPT formatuan.
2. Egindako lehen hausnarketaren emaitza. Bertan jasotzen dira:
 - Hizkuntza Normalizazioaren Ikuspegia
 - Integrazioa gauzatzeko detektatu diren hobetu beharrekoak, hurrengo pausurako (ekintza-plana) oinarria izango dena.

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA




KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

Euskara kudeaketa sisteman integratzeko ibilbidea

ZERTAZ ARI GAREN ARGITZEN



KUDEAKETARAKO ORAIN ARTEKO EGITURAK

Legebiltzareko Mahaia



Talde eragilea



Aholku Batzordea



...





...GOGOETA-TALDEA






PREMIA SENTITU






LEGEBILTZAR ELEBIDUNA

ELEBIZ KALITATEZKO ZERBITZUA ESKAINTZEN
DUENA






Kontua ez da zer bidali behar den eta zer ez den bidali behar Itzulpen Zerbitzura. Kontua da **ele** birekin lan egin nahi duen Legebiltzar honetan zer sortzen dugun **ele bietan** eta zer **ele bakarrean** (eta gero itzuli). Begirada ez da itzulpenean jarri behar, **elebitasunaren praktikan** baizik.





DIAGNOSTIKOA EGITEKO ERABAKIA





Hauxe da jarraitu behar dugun lan-ildoak:

1. Batetik, BIKAINekoa landu. Helburua litzateke egin nahi dugun lan hau guztia BIKAINen kalitaterako erlantzaren azpian kokatzea, euritako handi moduan. **Asmoa litzateke norantza argi bat eskaintzea eta egingo den lanak eta ahaleginak prozedura estandar baten babesa izatea. Aurrerapenek aitorpena izatea eta zailtasunak erronka gisa lantzea, jarrera positibo eta eraikitzailearekin.**







BIKAIN SIMULAZIOA



BALORAZIO KUALITATIBOA HIRU OINARRI SENDO





- 
- 
- Euskararen ezagutza handia da.
 - Euskara planaren egitura sendoa.
(Legebiltzarreko Mahaia, talde eragilea, aholku batzordea eta gogoeta gunea).
 - Euskararen aldeko giroa.



BALORAZIO KUALITATIBOA

HIRU ERRONKA (+1)



- 
- 
- ❖ Herritarren hizkuntza eskubideak erabat bete.
 - ❖ Sarrera berrietan lanpostuak eskatzen duen euskara gaitasuna bermatzea.
 - ❖ Langileak euskaraz sortzeko eroso eta ziur.
 - ❖ Langileen arteko lan-harremanetako hizkuntza ohituretan eragin.



EREDUA





EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


Euskararen Gobernantza Eredua


Lehendakaritza, 2018





METODOLOGIA





**KUDEAKETA AURRERATUA
ETA HIZKUNTZEN KUDEAKETA**

INTEGRAZIOERAKO BIDA

EUSKO JAURLARITZA
DEPARTAMENTO DE POLÍTICA PÚBLICA Y POLÍTICA SOCIAL

GOBIERNO VASCO
GOBIERNO DE POLÍTICA PÚBLICA Y POLÍTICA SOCIAL

**KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALTI
GESTIÓN AVANZADA**



DAGOENEKO AURREIKUSITA

❖ 2023-2027 PLANGINTZALDIAN

1.ardatza. KUDEAKETA

Hasierako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	300
65,86	197,59	

• KUDEAKETARAKO ERRONKAK

Euskararen kudeaketa Eusko Legebiltzarreko ohiko kudeaketaren barruan txertatzea, Administrazioako arduradunen eta langileen lidergo aktibo eta partekatuan oinarrituta.



KRONOGRAMA

- URRIAREN 2an bilera zabalagoa Euskaliteko teknikariarekin.
- Hortik aurrera lanean jarraitu taldetxoak egindako aurrelanetik abiatuta. (urria-azaroa)
- Ondorioak atera eta ekintza-plana zehaztu.
- Plan hau 2023-2027 PLANGINTZALDIAN txertatu.



2. KUDEAKETA SISTEMA AURRERATURANTZ. NOLA INTEGRATU HIZKUNTZEN KUDEAKETA ERAKUNDEAREN KUDEAKETA SISTEMAN.

GIDA PRAKTIKOA



ELISKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



Herburua

Bakoitzaren lan pertsonala egiten laguntzea.



Gure gomendioa

Galdetegi zabala arloz-arlo irakurtzea.



Zergatik?

EZ galdera guztiak erantzuteko.

Kontuan hartzeko zer kontenplazten den arlo horretan.

Zuen ekarpenak egiten laguntzeko Eusko Legebiltzarreko errealitatera.



Nola egingo ditut nire ekarpenak?

Berretsi edo konfirmatu (**berdez**).

Zuzendu (**gorriz**).

Ezabatu.

Testu berria gehitu.



Korapiloen zutabea

Hobetzeko ikusten duzuen.

Legebiltzarrak kontuan hartu beharko lituztekeen trabak, oztopoak, zutabeak... (baldin badaude)

ADII!

Garrantzitsuena da zuen proposamenak helaraztea, eta lantaldearen proposamenak baliatzea, horretarako baliagarriak badira.



I. BISIOA

BISIOA
(lantaldetxoaren
proposamena)



Hizkuntza eskubideak bermatzen duen Legebiltzarra (Zerbitzu hizkuntza)
Zerbitzua % 100ean eman bi hizkuntzetan. Horretarako, langile guztiak
zerbitzua euskaraz emateko gai izatea.

Organo eta talde parlamentarioen premiak asebetetzea eurek
hautatutako hizkuntza ofizialean jardun dezaten eta herritarren hizkuntza
aukerak bermatzea Legebiltzarrarekin dituzten harremanetan.

Bi hizkuntzetan lan egiten duen Legebiltzarra (Lan hizkuntza)
Euskaraz ere lan-hizkuntza izatea normaltasun osoarekin. Langileek
euskaraz naturaltasunez eta erosotasunez aritzeko baldintza
egokiak izatea beren lan-esparruan.



II. KUDEAKETA SISTEMA OROKORREAN HIZKUNTZEN KUDEAKETA INTEGRATZEKO HAUSNARKETA

Jarraian doazkizu lantaldetxoak egindako aurre-hausnarketa bost arlotan banatuta (egin Control + klik zuzenean atalera joateko):

1. [Estrategia](#)
2. [Bezeroak](#)
3. [Pertsonak](#)
4. [Gizartea](#)
5. [Berrikuntza](#)



1. ESTRATEGIA



HOBETZEKOAK	KORAPILOAK, ARAZOAK
Legebiltzarraren misioan, bisioan (ikuspegia, balioak, printzipio etikoak, politikak, <u>governatza</u>) txertatzea Hizkuntza (Normalizazioa) <u>ren</u> ikuspuntua.	
Hizkuntza Normalizazioaren inguruko lidergo konpartitua izatea	
Ondo zehaztuta izatea alor guztiak gobernatzen dituzten hizkuntza irizpideak . Baita hauen betetze-mailaren jarraipenerako sistema ere.	
Normalizazio lanetarako aliatuen mapa irudikatzea eta eurekin sinergiak bilatzea	
Hornitzaileen jarraipen berezia egin. Egun direnak, behar direnak... aztertu. Bi hizkuntzetan zerbitzua eskaini dezaketenak lokalizatu.	



ETA HEMENDIK AURRERA?





4.pausoa: KUDEAKETA SISTEMAN INTEGRATU

Kudeaketa elementuei buruzko hausnarketaren ondoren, eta egoera zein den ikusita, lortu nahi den agertokira heltzeko estrategia garatzeko eta hobetu beharrekoiei aurre egiteko ekintza plana garatu beharko dugu.

EKINTZA	ARDURADUNA (pertsonek, taldeak...)	EPEMUGA	OHARRAK



PLAN ESTRATEGIKOAN TXERTATU



TOKIAN TOKIKO MIKROPLANAK





ONDORIOAK

Zer dugu irakasteko?



NORA HELDU NAHI DUGU?




BITARTEKOAK JARRI



LAGUNTZA ESKAINI



ESKERRIK ASKO ZUEN ARRETAGATIK!



GOGOETA ESTRATEGIKOA: HAUSNARKETARAKO ZIRRIBORROA

I. BISIOA: **Aitzindaria** izan daitekeen Eusko Legebiltzarra

Hizkuntza eskubideak bermatzen duen Legebiltzarra (Zerbitzu hizkuntza)

Zerbitzua % 100ean eman bi hizkuntzetan. Horretarako, langile guztiak zerbitzua euskaraz emateko gai izatea.

Organo eta talde parlamentarioen premiak asebetetzea eurek hautatutako hizkuntza ofizialean jardun dezaten eta herritarren hizkuntza aukerak bermatzea Legebiltzarrekin dituzten harremanetan.

Bi hizkuntzetan lan egiten duen Legebiltzarra (Lan hizkuntza)

Euskara ere lan-hizkuntza izatea normaltasun osoarekin. Langileek euskaraz naturaltasunez eta **erosotasunez** aritzeko baldintza egokiak izatea beren lan-esparruan.

BISIOA
(lantaldetxoaren
proposamena)



1. ESTRATEGIA

HOBETZEKOAK	KORAPILOAK, ARAZOAK
<p>Legebiltzarraren misioan, bisioan (ikuspegia, balioak, printzipio etikoak, politikak, gobernantza) txertatzea Hizkuntza (Normalizazioa)ren ikuspuntua.</p>	
<p>Hizkuntza Normalizazioaren inguruko lidergo konpartitua definitzea eta garatzea.</p>	
<p>Ondo zehaztuta izatea alor guztiak gobernatzen dituzten hizkuntza irizpideak. Baita hauen betetze-mailaren jarraipenerako sistema ere.</p>	<p>Hizkuntza irizpideak ez dira ezagutzen eta hobeto sistematizatu beharko lirateke barnera begira euskararen erabileraren normalizazioan. Hobetu egin beharko litzateke ezartzen diren irizpideen eta jarraibideen zabalkundea.</p>
<p>Normalizazio lanetarako aliatuen mapa irudikatzea eta eurekin sinergiak bilatzea.</p>	
<p>Hornitzaileen jarraipen berezia egin. Egun direnak, behar direnak... aztertzea. Bi hizkuntzetan zerbitzua eskaini dezaketenak lokalizatzea.</p>	



Zerbitzua euskaraz eman dezaketen hornitzaileak aurkitzeko zailtasunak izanez gero, egoera horietarako jokabidea zehaztea

2. BEZEROAK (herritarrak, talde parlamentarioak)

HOBETZEKOAK	KORAPILOAK, ARAZOAK
Herritarrei, talde parlamentarioei, Legebiltzarrera maiz hurbiltzen direnei (kazetariak, komunikabideak ...) argi jakinaraztea Legebiltzarraren jarrera eta bisioa Normalizazioaren alor honetan	

3. PERTSONAK, LANGILEAK

HOBETZEKOAK	KORAPILOAK, ARAZOAK
Langileen hizkuntzarekiko bizipenak, premiak, itxaropenak, aspirazioak, sentimenduak orokorrean ... detektatzea eta aztertzea. Hau da, alor emozionalari heltzea.	
	Informazioa falta da hizkuntza eskubideen inguruan eta euskararen erabileraren inguruan (arrazoiak, motibazioa ...) Sentimenduen kudeaketa ere ez dago behar bezala



<p>Hizkuntza ohitura berriak AHALDUNTZEAN oinarritzea. Honek ekarriko du, berarekin batera, prestakuntza soziolinguistikoa lantzea. Alegia, hizkuntza-eskubide, hizkuntza-jarrera, eta motibazioaren inguruko prestakuntza.</p>	<p>landuta. Horren inguruan ekintzak antolatu beharko lirateke, jendeak jakiteko zer dela eta hartu behar duen euskararen erabilerarekiko konpromisoa eta zein ondorio dituen jarrera bat hartzeak ala besteak. Informazioa izan dadila norberaren askatasuna egikaritzeko edo praktikatzeko.</p>
<p>Legebiltzarreko Administrazioari egiten zaion Hizkuntza Politikaren komunikazioa berrikusi eta berraztertu, eraginkorragoa izan dadin.</p>	
<p>Arduradunen hizkuntza-gaitasuna eta jarrera sustatzea eta gutxienekoa bermatzea, laneko komunikazio-hizkuntzan modu positiboan eragin dezan.</p>	
<p>Lanpostu berrietan eta hutsik geratzen direnetan betetzen dituztenen hizkuntza-gaitasuna bermatzen jarraitu.</p>	
<p>Lanpostuen hizkuntza beharren jarraipena egitea eta erakundeak hautatu behar dituen pertsonen</p>	



hizkuntza gaitasunak lanpostuaren hizkuntza beharretara egokitzea.	

4. GIZARTEA

HOBETZEKOAK	KORAPILOAK, ARAZOAK
Etengabe adi egotea euskararen alorrean, orokorrean, eta administrazioarekin lotutako esparruetan bereziki gertatzen ari diren berrikuntzei eta aldaketei.	
Legabiltzarretik kanpoko eragileen (gizartea bera, herritarrak, gizarte-eragileak, kazetariak, komunikabideak ...) hizkuntza-premien espektatiben eta praktika onen azterketa eta ebaluazio jarraitua egin neurri zuzentzaileak eta eguneratzaileak jartzeko. (inkestak ...) Euren hizkuntza-premiak ezagutu eta hauen araberako ekintza-plana diseinatu.	



5. BERRIKUNTZA

HOBETZEKOAK	KORAPILOAK, ARAZOAK
Proiektu, ekimen, tresna... berriren bat sortzerakoan hizkuntzaren aldagaia modu sistematikoan gogoan izatea.	

